

# Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

## ZINEMA

### Doctor Zhivago

**Nafarroako Filmoteka**  
**Asteazkena | 19.30etan**

Yuri Zhivagoren eta Lara Antipovaren arteko amodio historia da, Boris Pasternak idatzitako nobelan oinarrituta. 1917-ko Eurrisako iraultza garaian jazotzen da eta guda zibila da oinarri.

Zuzendaria: David Lean

### Penitencia

**Nafarroako Filmoteka**  
**Osteguna | 18.00etan**

Europako herrialdeen artean Espainia da delitu gutxienean artean dagoen lurraldea eta gehien kartzeleratzen dena. Gure espetxetan persona asko daude, galdutak ikusten direnak, beraien kasurako behar den programa faltan dute.

Zuzendaritza: Pili Múgica y Raúl Montes

### Pamplona en el recuerdo 1930-1970

**Nafarroako Filmoteka**  
**Osteguna | 20.00etan**

"Pamplona en el recuerdo" filma, Antonio José Ruiz zuzendari iruindarrak sortutako azkeneko da. Hiriarekin maiteminduta zegoen eta bere lanari zor dizkiogu Nafarroako eta Iruñeko irudi eder aunitz.

Zuzendaria : Antonio José Ruiz

### Grietas

**Nafarroako Filmoteka**  
**Ostirala | 20.00etan**

Illo berdina duten bost istorio biltzen ditu filma honek: giza eskubideen alde egiten duten pertsonen bizitzak jasotze ditu hain zuzen ere.

Zuzendaritza: Xuban Intxausti

## HITZALDIAK

### "Léxico familiar" Natalia Ginzburg

**Nafarroako Liburutegia (Sala Infantil)**  
**Asteazkena | 18:00**

"Literatura unibertsalaren zortzimilakoak" zikloaren saio berria "Léxico familiar" eleberrria hausnartzeko. Mercedes Sánchez Marco izango da hitzorduaren gidaria. Sarrea doan eserlekuak agortu arte.

## LANTEGIAK

### Salirse por la tangente

Huarte Zentroa

2018/12/11 - 2018/12/13

Izen emate kuota: 15 €

Instituzioa, bere zentzuetako batek dioen moduan, ezarrita dagoen hura da. Eta kultura instituzioa ez da salbuespen bat, nahiz eta, gizartea kritikoki ebaluatzeko behar den hura eskuragarri jarri beharko lukeen arren.

### Mintegia: arteetatik abiatutako ikerlana eta abentura

Huarte Zentroa

2018/12/14 - 2018/12/16

Behin ikerketa batean hasten garenean, nekez jarraitzen diogu otzan-otzan ikerketa gauzatzeko egina genuen planari. Aitzitik, abentura posible bat izaten da. Ikerketa artistikoari dagokionez, guk termino horren inguruan antolatzen den konstelaziotik pentsatzea proposatzen dugu ikerketa artistikoa.

### Ongietorri ipuinetara

Nafarroako Liburutegia

Asteazkena | 18.00etan

Asteazkenero, gurasoek eta beste boluntario batzuek ipuinak irakurtzen dizkiete hurrei gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

## AURKEZPENAK

### El árbol de las historias vivas

Nafarroako Liburutegia. 1. Solairu Aretoa

Astelehena | 19:00tan.

Katrin Pereda kazetariak bere lehen eleberria aurkezten du, "El árbol de las historias vivas". Liburuak, udazkena bukatzeaz dagoela, Erromes bideari ekiteko erabakia hartzen duten lau lagunen istorioa biltzen du.

### Trocitos del Vivir

Nafarroako Liburutegia. 1. Solairu Aretoa

Asteartea | 19:00h.

Irene Zalba idazlearen liburu berriaren aurkezpena, "Trocitos del Vivir".

## ERAKUSKETAK

### Lapoblación Nafarroako Errege Artxibo Nagusian

## **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia**

**2018/12/01 - 2018/12/31**

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak Lapoblación herriaren inguruko informazio eta dokumentu anitzak plazaratzen ditu bere erakusketa berri honetan. Erakusketa txiki honen ateak abenduan zehar izanen dira zabalik Nafarroako Artxiboan. Sarrera doanik izango da honako ordutegian: egunero 10:00etaik 14:00tara eta 17:00etaik 20:00tara, asteburu eta festa egunak barne. Asteazkenetan berriz, 10:00etatik 20:00tara.

### **Habitación: oinez eta eskuz**

#### **Huarte Zentroa**

**2018/12/06 - 2019/01/20**

Ordutegia: ostiraletan 17:00etatik, 20:00etara/ larunbat eta igandetan 11:00etatik, 14:30era

Pauso bat, bi pauso, oinez, burdin hesi bat, aloe eta kalanchoe, harri bat, paperontzi bat eta kartoi zati bat, beste pauso bat, farola bat, txakur handi bat, hiru emakume, kartel bat, horma bat eta hodei bat, klaxon bat, argazki bat, beste pauso bat, tximinia, semaforo bat, plastiko poltsa bat hegaka, itzal bat, zubi bat, enbor zulatu bat, hosto horiak, ziklista bat, zuhaitz handiak, hesi bat eta txirrista bat, baratzeak, lore laranjak, bidea, zapata bat, eguzkia, haur-aulkitxo bat, hormatxoriak, beste pauso bat, errota, txorien etxetxoak, bibotedun gizon bat, bideberria, aztapu bat, beste laino bat, gurutzea eta ateri bat, kalbarioa. Oinez eta eskuz.

### **Larruaren sektorea Bangladeshen**

#### **Nafarroako Liburutegia**

**2018/11/22 - 2018/12/04**

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 20:30etara; larunbatetan 8:30etatik 13:30etara.

Argazki erakusketa hau ehungintza eta zapata industrian suertatzen diren lan baldintza kaxkarrak salatzeko prestatu da eta Nafarroako hainbat liburutegitan egonen da ikusgai. Erakusketa "Arropa Garbia Kanpaina"-ren harira antolatu da.

### **Karlismoa zineman**

#### **Karlismoaren Museoa (Estella-Lizarra)**

**2018/11/14 - 2019/04/28**

Ordutegia: larunbata 10:00h - 14:00h y 16:00h a 19:00h | igande eta jai egunak 11:00h - 14:00h

Gaur hasita eta apirilaren 28rarte Lizarrako Karlismoaren Museoak erakusketa berri bat edukiko du ikusgai: "Karlismoa zineman". Eneko Tuduri historiagilea izan da proposamen honen komisarioa. Erakusketa sei esparrutan dago banatuta eta karlismoaren urteetan girotuta dauden edota XIX.

### **Baxenabarre, lurralde berezia/ Basse Navarre**

#### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (Areto Nagusia)**

**2018/10/10 - 2019/01/13**

Susana Herreros Lopetegik komisariatutako erakusketa hau bi zatitan taldekatutako 16 beira-arasez osatuta dago, eta horietan, esparru txiki eta estrategiko horren bilakaera jarri

dute ikusgai, jatorrietatik Frantziako Iraultzaren (1789) ondorioz erresuma bezala desagertu zen arte.

**Macla, mamua, bismuto, vicario**

**Oteiza Museoa**

**2018/07/27 - 2019/01/20**

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: "la Caixa" Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea. Oteiza Museoak "Macla, mamua, bismuto, vicario" erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Alzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

**Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación**

**Nafarroako Museoa (kapera)**

**2018/10/26 - 2019/03/24**

Dora Salazar (Altsasu, 1963) Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultatean ikasitako artista plastikoa da. 1985ean bere lehenengo erakusketak eskaini zituenetik, etengabe agertu da bilduma pribatuetan eta publikoetan.

**BISITAK ETA IBILALDIAK**

**Iruñeko Katedraleko klaustroaren lanak**

**Iruñeko Katedrala**

**Igandea | 10.00etan, 11.00etan, 12.00etan**

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.